

# BBVA Trader Bolsa zerbitzua

**BBVA Trader Bolsa zerbitzua Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. ren bezeroei zuzendutako zerbitzua da, BBVAren bide digitalen bidez akzioekin edo ETFekin operatzen duten edo halakoak salerosten hasi nahi dutenei zuzendutakoa, hala webguneko bertsioan nola gailu mugikorretarako bertsioan edo aplikazioan, bezero horiei informazio eta eduki jakin batzuk edota salerosketak egiteko tarifa berezi batzuk eskainiz.**

Alde batetik, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, S.A. (aurrerantzean, **“Bankua”** edo **“BBVA”**), IFZ A-48265169, ordezkari gisa Manuel Agüi jauna duena, Rodrigo Tena Arregui Madrilgo Notarioaren aurrean 2021eko urriaren 6ko datarekin eta 5403 protokolo-zenbakiarekin emandako eskrituraren arabera, eta behar bezala inskribatuta dagoena Merkataritza-erregistroan. Eta bestetik, bezeroa (**“Bezeroa”**).

## Nola kontrata dezaket BBVA Trader Bolsa zerbitzua?

BBVA Trader Bolsa zerbitzua (**“Zerbitzua”**) [www.bbva.es](http://www.bbva.es) webgunearen bidez edo BBVAren aplikazioaren bidez (**“Bide digitalak”**) soilik kontrata daiteke. Ezin da kontratatu BBVAk gaitutako beste edozein bide (bulegoa, telefonoa eta abar) erabiliz.

Zerbitzu hau kontratatzeko, Bezeroak (i) Baloreen zaintza-, kudeaketa- eta bitartekaritza-kontratu bat edo gehiago (**“Baloreen kontratua”**) eduki beharko ditu eta ezin izango dute beste zerbitzu batzuekin lotuta egon (adibidez, zorroen kudeaketa-zerbitzu pribatu bati edo inbertsioei buruzko aholkularitza bati), (ii) Kontu korrontearen kontratu bat eta (iii) Bide anitzeko kontratu bat edo horrelako kontratu bat ordeztu edo osatu dezakeen beste edozein kontratu, Bide anitzeko kontratu horretan zehaztutako erabiltzaile-kodeak eta pasahitzak erabilita.

Aurrerago zehaztuko diren tarifei dagokienez, Zerbitzu hau kontratatzeak eragina izango du Bezeroa titularra den Baloreen kontratu guztietan. Bezeroaren Baloreen kontraturen batek titular bat edo gehiago izanez gero eta titular horietakoren batek beste Baloreen kontratu bat kontratatuta badauka, hurrengo ataleko 2. azpiataleko d) letran xedatzen dena aplikatuko da tarifei dagokienez.

## Zein eduki eta tarifa ditut Zerbitzu honen bidez?

BBVAk sarbide hauek jarriko ditu Bezeroaren eskura, hala webgunearen eta aplikazioaren bidez, nola bietako baten bidez:

### 1 Informazioa eta edukiak

Bezeroak honako hauek atzitu ahal izango ditu:

- Prestakuntza-eduki eskusiboak.
- Ekitaldi, webinar eta newsletter eskusiboak.
- BBVAk Bezeroaren esku jar dezakeen beste edozein eduki, informazio edo zerbitzu.
- Sarbide-zerbitzua denbora errealean kontratatzeko aukera, baita burtsa baten edo gehiagoren kotizazio-merkatuak sakontzeko zerbitzua ere. BBVAk zerbitzu horiek unean bertan eskainiko ditu, Bezeroak zerbitzu horrengatik ezer ordaindu behar ez duenean.

Zerbitzuren bat ordaindu behar bada, Bezeroak kontratatu egin beharko du. BBVAk kontratatu baino lehen jakinaraziko dizkio Bezeroari zerbitzuak dituen kostuak.

## 2- Zerbitzuaren tarifa bereziak

Bezeroak tarifa bereziak (“**Tarifak**”) izango ditu akzioak edo ETFak salerosteko eragiketetan, Bide digitalen bidez tramitatuz gero.

Bezeroak beste Bide batzuen bidez tramitatutako aginduei Baloreen kontratuan biltzen diren tarifak aplikatuko zaizkie.

Jarraian adierazitako Tarifak Bezeroak Zerbitzua kontratatzen duen unean aplikatuko dira, eta **Bide digitalen** bidez tramitatutako **akzioen edo ETFen salerosketa-aginduei** aplikatuko zaizkie.

Tarifek ez dute **barne hartzen kasu bakoitzean aplikatzen den kanonik, muga-zergarik, zergarik, tasarik eta antzekorik**, eta BBVAk aplikatutako Tarifekin batera likidatuko zaizkio.

### a) Tarifa-profilak:

Zerbitzuak baldintza ekonomiko aplikagarrien 3 profil (“**Tarifa-profila**”) zehazten ditu “Tarifaren epe” jakin batean exekututako akzioen edo ETFen salerosketa-aginduen (“**Eragiketa-kopurua**”) kopuruaren arabera.

Ez dira Eragiketa-kopurutzat joko Finantza-eragiketetatik eratorritakoak (adibidez: salmentak baloreak erosteko eskaintza publikoetan, baloreen erosketa, eskubideen salerosketa, dibidendue berriro inbertitzea eta bezeroak Bide digitalen bidez agindu ez duen beste edozein salerosketa-agindu).

Oro har, “T1” Tarifa-profila Zerbitzu hau kontratatzen duen unean esleituko zaio. Alabaina, Tarifa-epe batean Bezeroak egindako Eragiketa-kopuruaren arabera, Bankuak Tarifa-profil hobeagoa esleituko du eta automatikoki aldatuko da Zerbitzu honetan azaldutako baldintzetako Tarifa-profil bakoitzean eskatutako Eragiketa-kopurura iristean. Tarifa-profil hori hiru hilekoz behin berrikusiko da, dokumentu honetan adierazitakoaren arabera.

### b) Aldaketak tarifa-profilean:

“Tarifa berrikusteko data” Tarifa-epe bakoitzaren azken egun naturala izango da (martxoaren 31, ekainaren 30, irailaren 30 eta abenduaren 31), Bankuak Bezeroari aplikatuko zaion Tarifa-profila berrikusiko duen data. Era berean, Tarifa-epeak hiru hileko naturalei dagozkie, Bezeroak Zerbitzua kontratatzen duen egunean hasi eta Tarifa berrikusteko bigarren datan amaituko den lehenengoa izan ezik .

Tarifa-profil mesedegarriago batera aldatzeko, hurrengo Tarifa-profil onenaz baliatzeko beharrezko Eragiketa-kopurura iritsi beharko da Bezeroa (hurrengo koadroan ikus daitezke kopuru horiek). Eskatutako Eragiketa-kopurura iristean, Bezeroa automatikoki pasatuko da hurrengo Tarifa-profil onenera, Tarifa berrikusteko datara arte itxaron beharrik gabe, eta une horretatik aurrera, Bezeroak Bide digitalen bidez egindako agindu guztiek Tarifa-profil berriko komisioak izango dituzte.

Bestalde, Bezeroarentzat hain mesedegarria ez den Tarifa-profil batera pasatzeko, Tarifa berrikusteko datetan kalkulatu dira Eragiketa-kopuruak, eta azkeneko Tarifa-epean exekututako Eragiketa-kopurua zenbatuko da, Tarifa-profila aldatu behar ote den erabakitzeko. Tarifa berrikusteko data batean Tarifa-profil jakin batean jarraitzeko eskatutako Eragiketa-kopurua bete ez bada, ondorengo koadroan jasotako Tarifa-maila bakoitzean eskatutako Eragiketa-kopuruaren arabera dagokion Tarifa-profileira aldatuko da.

Aurrez esandakoari kalterik egin gabe, Tarifa berrikusteko datetan, Tarifa-profilean jarraitzeko aurreko hiru hilekoaren azken Tarifa-epean eskatutako Eragiketa-kopurua eskatutakoa baino txikiagoa denean, azken lau hiru hilekoetako Tarifa-epeetako Eragiketa-kopuruaren batez besteko aritmetikoa hartuko da kontuan (kalkulua egiten den Tarifa-epea barne), eta batez besteko hori Bezeroaren uneko Tarifa-profilean finkatutako

kopuru bera edo handiagoa denean, aldi jakin batean Bezeroak eragiketarik egiten ez badu edo normalean egiten dituen eragiketak baino gutxiago egiten dituenen, uneko Tarifa-profila ez kaltetzeko xedearekin.

### c) Zerbitzu honen Tarifa-mailak.

| Tarifa-profila ►                     | 1. tarifa (T1)                                  |   | 2. tarifa (T2)                                 |   | 3. tarifa (T3)                                 |   |
|--------------------------------------|---|---|--|---|--|---|
| Tarifa-epeko eragiketa-kopuruak ►    | 1-9 eragiketa bitartean                         |   | 10-15 eragiketa bitartean                      |   | > 15 eragiketa                                 |   |
|                                      | Merkatu nazionala                               | Nazioarteko merkatua                          | Merkatu nazionala                              | Nazioarteko merkatua                            | Merkatu nazionala                              | Nazioarteko merkatua                            |
| 2.000 € baino gutxiagoko eskudirua   | 5 €   | 20 €  | 4 €  | 15 €  | 3 €  | 10 €  |
| 2.000 - 19.999,99 € arteko eskudirua | 10 €  | 25 €  | 8 €  | 20 €  | 3 €  | 10 €  |
| 20.000 €-tik gorako eskudirua        | 10 € + 20.000 €-tik gorako zenbatekoaren % 0,25 | 25 € + 20.000-tik gorako zenbatekoaren % 0,25 | 8 € + 20.000 €-tik gorako zenbatekoaren % 0,15 | 20 € + 20.000 €-tik gorako zenbatekoaren % 0,18 | 3 € + 20.000 €-tik gorako zenbatekoaren % 0,05 | 10 € + 20.000 €-tik gorako zenbatekoaren % 0,15 |
| Dibisaren kudeaketa (1)              |   | % 0,45  |  | % 0,25%   |  | % 0,05  |

Adierazitako %ak eragiketaren balio efektiboaren gainean aplikatzen dira (biderkatuta), 1. oharrean azaltzen den Dibisaren kudeaketari buruzkoa izan ezik.

(1) Dibisaren kudeaketa-kostua, euroa ez den beste dibisa batean operatzen denean. Marjina implizitu bat aplikatzen zaio aurreko koadroan adierazitako truke-tasari, kasuan kasuko truke-tasaren gainean adierazitako %a aplikatuta, Tarifa-profilaren arabera. Truke-tasa lau dezimalekin hartuko da kontuan.

Adibidez, 3. Tarifa-profila aplikatuz gero, 2.500 USDko kontrabalioko erosketa-eragiketa batean, EUR/USD truke-tasa 1,0674 izanik, aplikatutako truke-tasa  $1,0674 \times \% 0,05$  (spread = 0,0005) izango da, hau da, 1,0679ko truke-tasa ( $1,0674 + 0,0005$ ) aplikatuko da. Bere kostu implizitua 1,10 € izango da  $[(2.500 \text{ USD}/1,0674) - (2.500 \text{ USD}/1,0679)] = 1,10 \text{ €}$ ], edo ehunekotan % 0,047.

Adibidez, 25.000 SEK-eko kontrabalioko erosketa-eragiketa batean, EUR/SEK truke-tasa 11,2800 izanik, aplikatutako truke-tasa  $11,280 \times \% 0,05$  (spread = 0,00564) izango da, hau da, 11,28564ko truke-tasa ( $11,2800 + 0,00564$ ) aplikatuko da. Bere kostu implizitua 1,10 € izango da  $[(25.000 \text{ SEK}/11,2800) - (25.000 \text{ SEK}/11,2856)] = 1,10 \text{ €}$ ], edo ehunekotan % 0,049.

Salmenta-eragiketetan, kalkulatu den spread hori hasierako truke-tasari kenduko zaio.

### d) Hainbat titular dituen Baloreen kontua. Espezialitateak

Bezeroak Baloreen kontratu bat hainbat titularrekin duenean, Eragiketa-kopurua Zerbitzu hori aurrena kontratatatu duen titularrarentzat soilik hartuko da kontuan.

Gainerako titularrek dituzten Baloreen kontratuei, halakorik egonez gero, kontratu horietan egiten dituzten Eragiketa-kopuruei dagozkien tarifak aplikatuko zaizkie (Zerbitzu hau kontratatuta badute).

### Nola erabil ditzaket Zerbitzu honetako informazioa eta edukiak?

Zerbitzua kontratatatu izanagatik unean-unean eskainitako informazioa eta edukiak (ikastaroak, webinarrik, ekitaldiak, eta abar) Bezeroak soilik erabili ahal izango ditu, eta informazio eta eduki horiek ezin izango dira erabili beste helburu baterako, eta ezin izango dira lagapen gisa eman, kopiatu edo hirugarren batekin partekatu ere.

### Zenbat balio du Zerbitzu honek?



Zerbitzua doakoa da; beraz, Bezeroak ez du ezer ordaindu behar, “Zein eduki eta tarifa ditut Zerbitzu honen bidez?” ataleko 2. azpiataleko c) letrako koadroan aipatzen direnak salbu.

### **Nola komunikatuko gara?**

Aldeen arteko komunikazioak eta informazioa aldeek izenpetu duten Baloreen kontratuan xedatzen denaren arabera zuzenduko dira.

Dokumentu hau sinatuz gero, Bezeroak baimena ematen du euskarri iraunkor batean eman beharreko dokumentazioa Bankuak une oro gaituta dituen eta Baloreen kontratuan jasota dauden bide telematikoek bidez igortzeko.

### **Beste baldintza batzuk**

Zerbitzu honi Espainiako legeria aplikatuko zaio. Zerbitzuaren ondorio guztietarako, Zerbitzuaren arabera Bezeroak duen helbideari dagokion forura eramatea adosten dute aldeek.

Kontratazioaren Baldintza Orokorrei buruzko apirilaren 13ko 7/1998 Legean zehazten denaren arabera, Zerbitzuaren baldintza guztiak Baldintza orokorrak dira.

### **Indarrean sartzea, iraupena eta muga-eguna**

Bezeroak, Bide digitalen bidez sinatzen duenean, dokumentu hau onetsiko du, eta aldeek izenpetzen duten datan sartuko da indarrean Zerbitzua.

Zerbitzuaren iraupen mugagabearekin hitzartzen da, baina noiznahi muga-eguneratu dezake Bankuak zein Bezeroak, arrazoirik eman beharrik gabe, beste aldeari gutxienez 30 egun natural lehenago abisatuz gero.